

**A.9.1. URKIZU****A.9.1. URKIZU**Azalera: 29.981 m²**I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak**

Bittor Sarasketa, Urkizu Pasealekua eta Asua Erreka kaleek mugatutako area da.

Antolamenduko irizpide orokorrek lehenik dauden eraikuntzak finkatzen dute oinarria eta berrurbanizazioko lan jakin batzuk baino ez dira planteatzen, Bittor Sarasketa eta Urkizu kaleen arteko etxe-uhartea osatuta A.A. 122 01 Bittor Sarasketa 9 Jarduketa Isolatuaen garapen bidez. Jarduketa horren zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

Bestalde, Barakaldo kaleko 1-3-5-7 zenbakien osteko kalearen berrurbanizatea planteatzen da, Asua Erreka eta, Barakaldo kaleko 1. zenbakiaren ondotik, Urkizu Pasealekuaren arteko lotuneari konponbidea emanda. Horrek, Asua Erreka kaleko 3. zenbakia duen eraikineria eta Orbea dorreetako soto solairuetarako irisgarritasuna bermatu beharko du.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordetzerakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2A "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Ereduak", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Ego ibai-ibilguaren jabari publikoaren gainean kokatutako eraikuntzek duten egoeratik ondorioztatzen diren baldintzak kontuan eduki beharko dira.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera esanguratsuen Egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan zehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.